

Ultzamako beste euskal testu bat (1796)¹

JOXEMIEL BIDADOR*

Honakoan ekartzen duguna Nafarroako Protokoloko Artxibategian topaturiko testua dugu. Agiriaren azalean agertzen den bezala, Eltzaburun eraiki beharreko maisuaren etxeko lanen baldintzak ditugu, zurginak zein harginak betebeharreko baldintzak hain zuen ere. Baldintzok erderaz eta euskaraz agertzen dira, ez ordea eskritura osoa. Honek zurginaren zein harginaren elebakartasuna erakutsiko liguke, hau da, orduko notariekin erdaraz zirriborratu ohi zituzten aunitz paper entelegagaitzen gainerako euskaldunen hitz famatua nahikoa ez bailitzan, honakoan behar-beharrezkoa suertatu bide zen betebeharreko baldintzak argi eta garbi paperean euskaraz ere finkatzea, zer gerta ere, erdaraz tutik edo ezer gutxi ulertzen ez zutenek geroantzean edozein motatako aitzakiarik jar ez zezaten.

Eskola fundazio hau Juan Jose Ihaben eta Martin Erbiti eltzaburutarrek sortu zuten 1789ko irailaren 16an, Eltzaburun bertan, 20.300 pezetako kapital batekin. Hasiera batean bertako haurren lehenbiziko ikasketak ematea zuen helburu, geroago ere eskola ondoko ekimenak finantziaketan aritu bazen ere. Ihabenek bere testamentuan agindurik utzi zuen bezala eskola hau ondoko Auza, Ilarregi eta Juarbeko haurrentzako ere bazen; 1847an ere halatsu gertatzen zen. Orduan, alta, maisuarena egiten zuenak bertako idazkari ere jardun beharra zeukan, bere lanarengatik 2.080 erreal urtean kobraztzen zuelarik.

Eskola eraikitzeko Eltzaburuko Martin Joseph Berasain, Ilarregiko Angel Itxaso, Juarbeko Joseph Fermin Santesteban eta Auzako Juan Berasain ziren Ultzamako lau herrien ordezkariek Asiaingo Juan Joseph Etxarriengana jo zuten, *maestro agrimensor* edo hargina zena. Aroztegiko lanak kontratatzen

* Euskal Filologoa.

¹ Beste ezerren aitzinetik bihoa nire eskerrik zintzoena Fidel Altuna lagun eta ikaskideari testu honen kopia deuseren truke eman izanagatik, ez baita gauzarik ohikoena liburutegi batetik ateratzean horrelako eskaintza guririk jasotzea, gerori agitu bezala. Beraz, esker mile aunitz Fidel!

arantzel eta baldintzak Etxarrik berak izkiriari zituen, alabaina, buruturiko kandela edo enkantean Eltsoko Juan Antonio Zubeldia zurginaren eskaientza baizik besterik aurkeztu ez zenez, kontratua azken honekin sinatu zen. Agiriaren arabera, Zubeldiak 200 peso kobratuko zuen, beti ere harginaren lana bukatu eta hamabost egunen buruan berea bukatzen bazuen. Zubeldiak Juan Martin Ilarregi Zenozko Lantxereneko nagusia hartu zuen segurtatzaile. Kontu guzti hauen zehaztasunak Markos Larunbe notariak paperean paua zitzan Auzan elkartu ziren aipatu guztiak 1796ko apirilaren 1ean.

Esangabe doa testu honen garrantziaren handia. Apurka-apurka ilunpetatik ateratzen diren euskarazko testuak geroz eta gehiago badira ere, arras gutxi dira honelako gaiak ukitzentenak. Agiri honen kasuan testua aterbetzen duen egoera, hots, enkante edo kandela bera, zein zurgintza eta hargintzaren gaineko kontu teknikoez izkiriaturik egotea bereziki erakargarri gerta dakizkiguke. Bestaldetik ere, testu hau Ultzamako corpus idatziaren urritasuna neurri batean artatzera letorke. Beste hamaika etorriko balira!

Gutxi dira Ultzamako euskaraz izkiriaturik dauden testuak. Lekukorik garrantzitsuenak Bonaparteren eskariz idatziriko itzulpenak dirateke. Halaxe bada, Bonapartek eskatuta burtu zuen Lizasoko Pedro Tornariak Asteteren itzulpena: *Astete añadido por Luarca traducido al dialecto de Lizaso*. Ez zuen Printzeak bere garaian argitara eman, eta hortaz, Orrega Ibarrak bere tesi-lanaren harian honen estraineko edizioa apailatu zigun 1992ko ASJU-n, “Ultzameraz idatzitako bi dotrinaren edizioa eta azterketa”. Lehen hezkuntzako irakasle Iraizotzen ziharduen Tornariaren lana 1863 inguruhan egina da, eta bestelako itzulpenak ere ondu bide zituen Lizasokoak –Mateoren Ituna, Apokalipsia, Kantiken kantika, Ruthen liburua, eta Jonasen profezia–, Bruno Etxenikek printzeari 1869ko apirilaren 8an igorri gutunean esanikoaaren arabera, haatik, urdazubiarrak aipatu lanen berri ez zaigu iritsi, eta ezin zehaztu eginak eta galduak diren, ala egin gabe geratu zirenenetz. Tornariaz dakiguna, aldiz, arras gutxi da, eta esanikoa gain, jakin badakigu 1853an eginiko Larramendiren hiztegiaren bigarren argitalpeneko harpide-duna izan zela, eta beraz, orduko giro euskaltzalea ez zitzaison arrotz.

Printzeak itzularazi zituenez gainera, Lizasoko aldaerari buruzko hainbat kolaborazio helarazi zizkion Campioni, azken honek *Euskara* aldizkarian agert zitzan. Aurretik baina, *Orreaga* idazki ezaguna agertu zuen Campioneek, non Ultzamako euskarara bihurtutako aldaera Auzako Bizente Lazkok egin baitzuen. *Euskal Testu Zaharrak* bilduman ere Iraizozko semea zen Bernardino Gerendiain apezak ondutako dotrinaren berri eman zigun Jose Maria Satrustegik. Gerendiango eliz parrokiako erretore honek 1888an tajutu zuen bere idazkia, eta Arruazukoaren aburuz, eskuizkribu hau dugu 1906an argitara eman zen dotrinaren testu bera, <gero Erice eta Garciaren moldiztegian argitaratutakoaren orijinala da>. Baliteke hala izatea, baina gauza ezaguna da *Cristau doctríñe aite Gaspar Astetec erdaraz escribitue eta Ulezamaco apezac balle ontan yarduquitzen den usquerara biurtue beren feligresan amorioz izenburuko itzulpenaren edizioa Justo Albisu Iriarte Alkozko seme eta apezak hartutako ardurari esker atera zela. Ibarreko eliz kabildoa euskarazko dotrina baten behar goria zegoela sinetsirik, lan honen azken zirriborroa apezpikute-giko eliz zentsurari 1906ko irailaren 6an aurkeztu zion, baita dotrinarekin batera ere, Ultzaman ziharduten Frantzisko Berasain, Juan Miguel Gerendiain*

eta Justo Albisu apezek sinaturiko azalpena. Bestalde ere, Albisu Azkueren kolaboratzaile fermua izan zen, eta ipuin ugari kontatu zizkion lekeitiarri.

Ultzamako euskal testuen corpusa osatzera datorren agiri honek hiru zati ditu, erdarazko eskritura bera, zurginak zein harginak betebeharreko baldintzak euskaraz, eta beronen erdarazko itzulpena. Honakoan hauetariko azken biak jasotzen ditugu soilik. Euskarazko testuaren grafia berean utzi dugu, eta nahikoa garbia gertatzen bada ere, erdal itzulpena lagungarria izan daitekeelakoan jasotzeari ongi iritzi diogu.

BIBLIOGRAFIA

- BIDADOR, Joxemi, "Ultzamako euskal idazleen berri laburra", *Nafarkaria*, 1999-VI-18.
 CAMPIÓN, Arturo, *Orreaga: balada escrita en el dialecto guipuzcoano...*, Iruñea, 1880.
 IBARRA MURILLO, Orreaga, *Ultzamako bizkera: inguruko euskalkiekiko harremanak*, Iruñea, 1995.
 PAGOLA, Rosa Miren (zuz.), *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Iparraldeko goi-nafarrera*, Bilbao, Deiker, 1995.
 SATRUSTEGI, José María, *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia, 1987.

Elzaburu, Ylarregui, Juarbe, y Auza

Abril 1º de 1796

Escritura para la Construcción de las Obras de Carpintería para la Casa del Maestro de Primeras Letras

Carpintería

Candela ontan Paracen diren Condicioac Zurguinceri obliguecen Zaizquionac:

1. Lentabicicoa: Arbolac botacea Lau Errieq senalacen dion paragean lancen tuelaric cuidadoarequi, bearden bezala, ala Pillareaq, Puenteac, beren chinelequi, Lurreco Zureq, Colomaq, Caprioac, Lataq, Piezaq, Escaleratacoac travesañoaq, tablonaq, Entablaceco, Escolaco sala, eta Olaq Echeac beartuenac.
2. Bigarrena: Armatucotu Lendabizico Ganbara, eta Bigarrena, Diseinueq arre-glacenduen bezala, Machumbrean jarzendelaric, eta Lurrean egon beardutene Zurec, batetic bercera, Yrur oīñ separaturic.
3. Yrugarrena: Armacenduelariq Lendabicico Escalera eta Bigarrena, bere Balostarequi, Antepecho Lisoequi.
4. Laugarrena: Parazentuelaric Marcoac, Atariec, Colomac, beren Errequequi, Diseinueq mostracenduen lecu guztietan, onguy Ytzeturiq, bere zerraje necesario, eta Guiltce guztierequi, bai-etare Atari Principala bere Zerradure eta Guilce suficientiarequy.
5. Bosgarrena: Balconac beren Cartelac, Balostrac, Antepechoa, Zapata eta Sue-loa entablaturiq. Ontas landara bi Escalera buruten beren Atariec.
6. Seigarrena: Leio guztiec bi Erdidiquequi beren leatillequi eta Seguridade guztiarequy.
7. Zazpigarrena: Echemenico Amazonaqa eta Suquel zorroa, bere fondo onarequy eta Seguridade andiarequy.
8. Zorigarena: Armatu Tellatue eta paracen Zaiolariq, Laza onguy Ytzeturic bai etare Telle, acostumbracenden bezala, Aiciac botatu ezdezaquen bezala.
9. Bederacigarren: Atari eta Leio gucien Cavezalac Yzan biardute Zureq, guztiec Artean Conforme deus faltaric gabe.
10. Amargarena: Balconaren Parean manenzaio Bueloa Arancelac Erratenduen bezala, eta Zubajea, manenzaio Elicecharen Neurrin, Zergatic Ure dagon Su-

ficiente, obligacio oyen daco ematenzaio Posture Eun eta Oguyeta Amar Duquet, eta tanto bacoizac importatucodu Duqueta tanto erdiec Duquet Erdie.

Lentabikico Arguinceri tocacenzaion Candelan obra au, artubiarduenac, izan biar duen obligaciona:

1. Lenbicicoriq: Lau Yllabetez alciñetiq obran asi baño lenago, biardu Morteroa ongi oraturic, ona, aranzeleac aguincenduen bezala, ure eta Area, Arguiñeq biardu bere Carguen artu.
2. Bigarrena: Arrie ateracea, Quisue eguitea, eta Arrien Carretoa, eta Zimendueq, Aranzelaq manacenduen bezala ateracea, da Modu ontan, Zimendue biardu idiqui, Lau onian barrena, eta Yru oin, eta erdy Zabal, eta ezpaldinbadu alcanzaren, Zimendu seguroa arrepatu artio biardu seguitu, eta etzaio Abonatuko, eztatu gueiago, Zimenduen arquicendiren baño gueiago, Eta paratucotu obran astean, Lau esquiñetan Zigor bana, eta Errien Asistenciarequy.
3. Yrugarrena: Zimenduen Paretac biarduen loditasune, da Yru oīñ eta erdi lenbicicico Hlajaraño uztenduelariq oīñ erdibet Hlajan; andiq gora lendabicico Ganbara, Yru oīñ, eta andiq gora bigarren Gambararaño, Bi oīñ eta Erdi, seguicenduelariq Diseñueq mostracen duen bezala, Neurcendelariq Escala figurada, Zimenduen berian, Empleetucoda, arririq Lodiena, paracen delariq obra guztien traviesaq lau oñetiq, lau oñera, eta formatucotu Leioac, Diseñueq, eta Arancelaq aguincen duen bezala eta Leioaq paratucotu beren abuja antepecho eta Cabezalq acererien, eta lau Esquiñeq guisa berian Diseñuec arreglazen duen bezala; Balconaco Atarie bere umbralala eta abuja eta Cavezal, eta bi tranquero alde bacoizetiq.

Eta Portalada guztie sillerien, eta Espalmoaq Acererien, Eta sucaldia eguitenden lecuen formatuco da, ferratac yduquiceco toquie bere chorrotarequi, oin bet bueloa duela paretatiq Alciñe, gucie acererien. Bi pillare Echeac itzanbeardituenac Yru oñian biardute alto, acererin, andic gora Zurez. Escolaco zerramentue eta Echearen Argamasac diren guztiec, izanendire, Arguiñaren Contuen Zerracea, Baetare Colomac Zurguiñac paratu onduan Erchicia.

Ontas landara Echemenie eta Socaldea beartu Losatcea Zerracea eta Ymbuciela Saiesetic bi arri Aranzalaq aguincen duen bezala, Baetare beartio Leioetan paratu Burnic, Artean Conforme, obligacio ontaraco ematenzaio Oguey Erreal Ezstatuko precioa ontan paracenda Candela, Condicioarequi tanto bacoiza Yzanenda sueldoia eztacuko, tanto erdie Bederaci maravedy.

Erdarazko aldaera:

El cantero qe. se encargase con la obra de Cantería Prime. ara el mortero, quatro meses antes de enpezar la obra, dejandola bien batida, mezclando, a dos cargas de cal, tres cargas de arena, la conduzión de la agua y arena sera de cuenta del cantero, la cal y el carroto así de piedra, como de la cal y el ranque de la piedra es obligación del dho. cantero, debera abrir todo el zimiento en quattro pies de profundidad con tres pies y medio de ancho y sino le alcanzare el zimiento seguro, profundizara asta encontrarlo, y no se le debera abonar mas q. los estaos q. se allen, al empiezo de la obra se pondran en los quattro extremos, un palo en cada uno, con asistencia del Lugr. pues al tiempo de la midizion cuesta mucho, la escabazion para berificar el zimiento, el grosor de las paredes asta la superficie de la tierra devera tener tres pies y medio, dejando un Relex de mediopie, se seguirá asta el primer suelo en tres pies y de allí asta la final en dos pies y medio, siguiendo la estension qe. demuestra el plan, midiendo por la escala figurada, y en el zimiento se empleara la piedra del maior grosor, poniendo en toda la obra, traviesas de quattro a quattro pies, y formara las ventanas con sus abujas, antepecho y cavezal en azzerería, con arreglo al diseño la puerta del balcon con su umbral abujas y cavezal, y dos tranqueros, en ca-

da lado la portada Prinzipal toda ella en sillería, los espalmos en azereria, donde se aga la cozina se formara un encajonado para el descanso de tener las rradas con su chorro q. vuelta un pie fuera de la pared, todo en azereria los dos pilares que lleva dha. casa asta la altura de tres pies en azereria, de alli enrriba de madera, el zerramiento de la escuela y de todos los tabiques que hubiere en dha. casa, seran de Cuenta del Cantero, el Zerarlas despues que el carpintero ponga las columnas, y tambien el Calafatear la cheminia, y enlosar la cozina, y en las bentanas poner los yeros, qe. el Lgr. le diere todo ello con forme arte, y tendra de coste cada estao de Manposteria onze Reales yncluido en ella la sillería y azereria, y aszendera su ymporte a Ciento y quarenta reales.

Las condiciones de Carpintería Prime. el encargado de la obra ara el corte de la obra en los montes qe. los lugares le destinases labrandolos con el Cuidado qe. se requiere asi Pilares Puentes con sus chineles maderos de suelos columnas Latas Piezas de escaleras trabesaños tablones para entablitar la escuela y tablas para los suelos qe. lleba dha. casa=

Prime. armara todo el primer y segundo suelo con arreglo al diseño entrando en machenbra todos ellos y qe. los maderos de los suelos no tengan mas separación de unos a otros que la de tres pies, armando la primera y segunda escalera, con sus balustres, de antepecho lisos, poniendo los marcos puertas y columnas con sus regatas en todos los sitios qe. demuestra el diseño bien clabeteados y con to el erraje nezesario Y llaves para su zerrdura a una con la Puerta prinzipal, el balcon con sus cartelas balustres antepecho y Zapata y el suelo entablado amachenbra, y tambien en las dos escaleras si pareziere nezesario sus puertas, todas las bentanas en dos medianas con sus bentanillos, con todo su erraje y seguridad nezesaria, armazones de chiminea el Zorroton con buen Fondo y mucha seguridad armar el tejado ponerle la lata bien clavadas, y tambien la teja con el ondeado qe. ba demostrado, para qe. el aire no levante la teja, todos los cavezales de puertas y bentanas an de ser de madera todo conforme arte sin que falte cosa alguna para ponerla avitable, la teja que dha. casa a de llevar sera la de quatromil y dos cientos, esto lo daran los Lugares, para qe. al balcon no le pegue el agua en aquella parte debera bolar el tejado trespies, y medio mas, todo esto es obligacion del carpintero y tendra la Coste esta Carpinteria Ciento y treinta reales. El grosor de todo el maderamen a ymitazion del de la casa abazial porque esta mui suficiente. La mesa y los asientos para la escuela de ambos lados.

LABURPENA

Honakoan Eltzaburuko eskola 1796an eraikitzeko zurginari zein harginari ezarririko baldintzak jasotzen dira. Baldintzok berariazko agiriarekin batera Nafarroako Protokoloetako Aretxibategian aurkitu dira. Euskaraz izkiriaturik egoteak orduko gizarte nafarraren euskal elebakartasuna norainokoa zen argikiro adierazten digu. Bestalde, testu laikoa zein Ultzamako euskararen lekuko idatzi gutxienetarikoa izateak berebiziko interesa dauka.

RESUMEN

Recoge este artículo las condiciones para el cantero y carpintero que realizaron la obra de la escuela de Eltzaburu (Navarra) en 1796, encontradas junto a su escritura pertinente en el Archivo General de Navarra (Protocolos). El hecho de que estas condiciones fueran redactadas en euskara nos hace pensar en la condición monolingüe de gran parte de la sociedad navarra de finales del XVIII. Por otra parte, el carácter laico del escrito, así como el hecho de ser uno de los pocos testimonios escritos del euskara propio del valle de Ulzama le confieren un especial interés.

RÉSUMÉ

Cet article recueille les conditions pour le tailleur de pierre et le charpentier qui réalisèrent l'œuvre de l'école d'Eltzaburu (Navarre) en 1796, trouvées avec son écriture pertinente dans les Archives de Protocoles de Navarre. Le fait que ces conditions furent rédigées en euskara nous fait penser à la condition monolingue de la plupart de la société navarraise à la fin du XVIII ème siècle. D'autre part, le caractère laïque de l'écrit, ainsi que le fait de représenter l'un des rares témoignages écrits de l'euskara propre de la vallée de l'Ulzama lui confèrent un intérêt très spécial.

ABSTRACT

This article collects the conditions set out to the stonesmith and carpenter who built the school in Eltzaburu (Navarre) in 1796. These conditions were found with the relevant deeds in the Navarran Protocols Archive. The fact that these conditions were drafted in Basque would lead one to believe a large part of late XVIII-century Navarre to be monolingual. The writings are also considered to be of special interest due to their lay nature and because they represent an example of one of the few written testimonies of Basque from the valley of Ulzama.

P. t.

Aentzalco oñgiñexi zocacorrazor. Ganderen
otra au axtibaiduenak izan biaduen obligazioa

1. Lantibiziong, ikau Mabietz alainteg stran ari baino
leongo, biaudin etxetxoza ongi oxarrazig, ona, azan-
zaleac aguicenduen berala, ure eta ornea, Agui-
riea biadu bere arguen arri;

2. Oñgiñexa etxie atxiea, Guine, eguita, eta
etxien. Paxetox, eta Timendue, oñznelasq. manacenduen
berala atxiea, da eldu; ontan, Timendue biadu
iduki, ikau orian baxena, eta. Iku oin era erdi
zabal eta ezbaldeinbadu alanzaren, Timendue ve-
gueroa arrepatu aitio biadu irugitu, eta etxio
oboratuco, ezratu gueiago. Timenduen arquicen-
diren baino gueiago; Era paratzosu obia artean,
ikau aguinetan Zigoz bana, eta Etxien oñztericia
zequy;

3. a. Iragarrena Timenduen. Paxetox biaduen loditu-
rune, da Iku oin era erdi aentzalco Itzaxarano;
uztenduelariz oin exibit. Itzarin; andiz gora ben-
abizalco Sanbaxaxa, Iku oin, eta andiz gora biga-
xeen Sanbaxarano, Bi oin eta, Erdi, arquicendue-
lari. Diveriñez mostrazenduen berala, Seurcen-
delariz obiala, Iguada, Timenduen berian, Emple-
etuko, axixiz Odriera, paxetox delariz obra gur-
dien ~~eta~~ traxien lau ordea, lau ordea, eta fo-
marazoko Leioa, lehen Diveriñez, eta oñznelasq
aguicen duen berala,